

# HAUSTURAK

## 5. EGONALDIA

*Imanol Ikardo*

Hausturak-eko hezitzailea

Hain gertu eta hain urrun, Jaizkibel. Ez da lehen aldia mendira joaten naizela. Baina lehen aldia da zortzi gazteren ardurapean mendira joaten naizena. Hausturak, egitasmoa errealitate bilakatu da. Haustura, egunerokoarekiko; haustura, erosotasunekiko; haustura, teknologia zahar eta berriekiko; haustura, norberaren ingurunearekiko; eta abar. Abiapuntu interesgarria. Abiapuntu zertarako?

Handizaleegiak ez ote garen galdetzen diot askotan nire buruari, egitasmoen helburuei dagokienez. Agian handizale izatea gizarte gaiekin ez da kalterako izango. Bost eguneko irteera beharrean hamar egunetako izan balitz, nire handizale sentimendua apur bat leunagoa izango litzateke; baina apurtxo bat bakarrik. Tira, handizaleak handizale, bost egun hauekin bidea egin denik ezin ukatu, eta bizitutakoak, merezi izan diela, gazteei, eta merezi izan digula guri, hezitzaileoi, ere ez. Haustura txiki bat. Bizipen positiboak eta sakonak pilatzeko hausturatxoa; nor bere burua hobe ezagutzeko hausturatxoa; lagun berriak egiteko eta harremanetan trebatzeko hausturatxoa; bizikidetzarako diziplina lantzeko hausturatxoa; haustura txiki askoren hausturatxoa; bost egun mendian.

Pertsona orok behar du bizipen positiboak heltzeko aukera izan. Bizipen positibo hauek askotarikoak dira eta norberak han eta hemen pilatzen ditu. Zortzi gazte hauek aipatutako hau ez dago aparte. Nik, nire bizipen positibo eta esanguratsuen artean, gaztetako hainbat mendi irteera baditut beste pasadizo askoren artean. Orain, aste hau igarota, beste bat pilatu dut. Eta jakin badakit, eurek esana delako, gurekin etorritako gazte hauek ere, bizipen positibo eta esanguratsu bat pilatu dutela, beste bat. Momentu ezberdinetan, igarotako aste honetako pasadizoak ekarriko dituzte gogora eta ziur nago irribarre bat aterako zaiela. Inongo zalantzarik gabe haiei geratu zaien sentimendu eta ideia honekin geratzen naiz.

Baina handizale garenez, positiboagoa eta esanguratsuagoa izan zitekeela badakit. Hori, jarraitu izan bagenu. Pena? Ez dakit. Hausnartzekoa? Bai. Gizarte honen drama.

Eta idatzitakoa horrela da, taldeak honetarako bide eman duelako eta denon egiteak giro onari lagundu diolako. Horretan denok eman behar dizkiogu eskerrak elkarri. Haustura positiboak eta esanguratsuak badiarelako, negatiboak eta esanguratsuak ere badira. Zortea lagun? Agian. Zortea zorte, ez diezaigun meriturik kendu taldekideok taldearen kohesioan egindako lanari.

Bizikidetzarako diziplina minimo baten balioespena bilatu dugu eta landu dugu. Eta ez zaigu erraza egin indibidualtasunak jarritako trabak gainditzea, haserreak, eztabaidak... Horregatik diot: meriturik ez kendu, taldeak kohesioa bilatu du, denok bilatu dugu. Eta hori eskertzekoa da. Talde baloreen

onespenak, taldea indartzen du eta norbanakoa integratzen. Egunero honetan lan egiten, eta laugarren egunean zer? Lehen egunarekin alderatuz ereindako haziak loratzen ari ziren. Eta bosgarrenean, etxera negarrez, kontent vs. triste.

Nik uste, talde giro on honetatik abiatuta, beste guztiak, itsasertzeko garbiketa, etxeko lanak, ibilaldiak, denbora libre, bide onetik joan direla. Normala denez gauza jakin batzuk satisfazio handiagoarekin hartzen dira. Esango nuke, adibidez, ibilaldiak eta toki batetik bestera mugitzeak, kanpalekuz eta parajez aldatzeak, eta hau nork bere kabuz, oinez egiteak satisfazio handia eman diela, digula, esfortzuaren eta nekearen gaineratik. Ibilaldiek, nekearen eta esfortzuaren poderioz, solidaritatearen balorea eta elkarren arteko harremanak indartzen dituzte eta gurean ez da gutxiagorako izan. Adibide bezala azken hau joan bada ere, abiapuntua talde giro ona izan dela azpimarratu nahi dut, honek ahalbidetzen du beste guztia.

Eta satisfazioaz ari naizenean, ez dut esan nahi dena arrosa kolorekoa izan denik. Ibilaldietako satisfazioa aipatu dudana bezala, etxeko lanetan (kanpalekua muntatu eta jaso, harrikoa egin, sukaldatu...), itsasertzeko garbiketara, satisfazioa ez da izan preseski sentimendu nagusia. Baina lanean aritzeko konpromisoa hartzeaz gainera (besteak beste Ikerrekin hitzartua zutena), talde antolakuntzaren ondorioz sortzen den lanaren banaketaz ohartzea (eta hau ez da lehen egunetik gertatzen), eta norbera antolakuntza horren parte dela konturatzea satisfazio bat da. Laugarren egunean honen guztiaz kontzientzia hartzen hasiak zirela esango nuke, lehen aldiz egitekoak, oro har, gure agindurik jaso gabe burutu baitzituzten. Honek, tamainan, talde baten satisfazioa neurtu dezake, gustura lan egiten duenaren seinale. Hau da arrakastarik handiena eta ondorioz...

Ongi pasa dugu. Ongi pasa dut. Nekatuak iritsi gara, fisikoki. Batzuk besteak baino gehiago. Adina? Jakina. Barre egin dugu. Dezente. Harritu gara batzuk besteekin eta besteak batzuekin. Aupa jamba eta aupa jambo. Haserretu gara eta eztabaidatu dugu. Oihukatu ere. Ados jarri gara eta adostasunetik urrun ere egon gara. Izutu gara. Agindu dugu. Negar egiten ikusi dugu. Harrokeriaz jokatu duenik egon da. Elkarrekin egon eta izan gara. Elkarren beharra sentitu dugu. Bizitu dugu.

Eta hau dena, mendian ibili garelako, oinarrizko gauzez horniturik, primitiboki, basati, gure jatorri hiritarrarekin hautsiz, baina haren gerizpetik aldendu gabe. Oreka? Halabeharrez. Haustura baliatu nahi omen dugu gerizaren ilunak argitzen laguntzeko. Zerbait lortu badugu, bejondeiela!

Hausturak 2010  
Imanol Ikardo